

LAN BATZORDE IREKIAK**TALDEA****OBRA BATZORDEA****IRAUPENA****1.5 ordu****EGUNA****2019-01-29****GAIA****DEIALDIA****PARTE HARTZAILEAK**

Endika Igarzabal

Iñaki Etxezarreta

Asier Agirre

Joxe Kruz Baztarrika

Nikolas Igarzabal

Felix Maiz

Jose Ramon Peñagarikano

Iñaki Maiz

Asier Osinalde

LANDUTAKO GAIAK**GAIA****EKINTZAK****ARDURA
DUNA****NOIZKO****BASERRIBIDEAK**

- Bideen inbentarioari: beste enpresa batekin kontaktuan jarri gara, bi aurrekontu lortzeko. Beraiekin biltzekotan gara, beste presketiba bat izateko.
- Hauekin egingo den bilera:

MINATAKO BIDEA

- Bi luiziak konponduta daude, esleipenaren prezioaren barruan (65.000€).
- Datorren urte honi begira, akzio puntualak aurreikusten dira okerren dauden tokietan.

OSTATU

- Leader proiektutik laguntza jaso da, 53.000€. Laguntza honekin, lehen fase osoa egingo da (ingurua prestatu eta igogailuarentzako prestatuta utzi).
- Irigarritasun saileko laguntzetan ere sartu da igogailuaren proiektua.

ALEGI AUZOA

- Lanak martxan daude. Ezusteko bat egon da, izan ere farola batzuk sartu gabe zeuden, eta horien gastua udalak bere gain hartuko du (3 farola).

ORBELDIKO BIDEA

- Azken hiru urtetan esaten aritu ondoren, lanak ia martxan daude (zati okerrena asfaltatu eta luizi bat konpondu).

**ARAU
SUBSIDIARIOAK**

- Komentatutako aldaketak aurrera doaz, baina denbora beharko da aldaketak egiteko. Plan berezi baten barruan egingo da aldaketa puntual bezala, azkarragoa izan dadin.
- Azeleratzen saiatuko gara.

**ARROAKO
PROIEKTUA**

- Proposamena aurketu degu bileran, jabeen aldetik helarazi digutena.
- Ikusi da planteatutako etxe mota ez dela bideragarria irtengo

	<p>marrastu duten urbanizazioarekin. Horregatik etxe adosatuen ideia landuko da, etxebizitzaren azken prezioa jaisteko asmotan, uste baita gazteentzako etxeak direla proiektu honekin lortu behar direnak.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Beste buelta bat emango zaio. 		
ESKOLAKO PARETA	<ul style="list-style-type: none"> • Ez da aurrekonturik eskuratu, momentuz. 		
HUSTIATEGI TXARTELA	<ul style="list-style-type: none"> • 50 lagun apuntatu ziren guztira, eta Gabiriako 3. 		
AGERRE AZPIKO KRUZEA	<ul style="list-style-type: none"> • Informea prest dago eta firmak ere bildu ziren. • Guztia Aldundira helaraziko da. 		
UR KONSORZIOA	<ul style="list-style-type: none"> • Txoko azpian, euri urak fekalengandik bereizteko burutu zituen lanak. • Errotaetxeko zubi inguruan hidrante bat jartzeko eskatu dugu eta aztertzen ari dira. • Herriko sarean ura galtzen dutela diote (dezente), eta azterketa bat egitekoak dira. 		
BIDEEN ORDENANTZA	<ul style="list-style-type: none"> • Inbentarioa egitea aztertuko den bigarren enpresa honek badauzka baserri bideetako ordenantza desberdinak. Agian eredu moduan erabili daitezke. Kontsulta egingo zaie datorren bileran. 		
IRIZAR	<ul style="list-style-type: none"> • Proiektua aurrera doa. Errekatxoa tapatzeko baimenik ez dute lortu eta desbideratu egin behar dute. • Proiektuaren puntu batzuetan aldaketak egin dituzte, eta horiek adosteko bilera bat egin berri dugu aste honetan bertan. • Udalaren abokatua proiektua berriro zehatz begiratzekotan geratu da, aurrerapausoak eman ahal izateko, baina ez da arazorik ikusten proiektuak aurrera jarraitu dezan. 		
GUEÑES-ITSASO	<ul style="list-style-type: none"> • Boletinean atera da proiektua eta aurrera doa. Laster hasiko dira eraikitzen. 		
MUTILOAKO ZABORTEGIA	<ul style="list-style-type: none"> • Mutiloako udalak beste 24 urterako (eta ez 2024 urtera arte) luzapen eskaria jaso du zaborteagiaren enpresa kudeatzailearen aldetik. • Momentuz ezekoa eman du Mutiloako udalak, baina diotenez nahiko serio dabilta luzapenaren bila. 		

Hurrengo bilera: martxoak 26, 19:00tan